

Noaia!!!

www.noaia.com



Ibai Arrietak irabazi du
jaietako argazki lehiaketa



Bide onetik doaz
organoaren herritze lanak

Laster oportetara goaz

Uztailaren 24an kaleratuko dugu ikasturte honetako azken NOAUA! astekaria.

Irailaren 11n argitaratuko dugu hurrena.

Uda honi begira ohar, albiste, zorion agur... edo iragarkiren bat ipini nahi baduzu, gogoan izan uztailaren 20a baino lehen ekarri beharko duzula.

erredakzioa@noaua.com

Noaua!!
www.noaua.com

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

-plataformak -igogailu bereziak -aulki bereziak...



behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

Albistea iruditan !!

Jaietako balorazioa egiteko bilera deitu dute

Santixabelak duela pare bat aste Samaitu ziren. Bost egunez, denetarikoko ekitaldiak ospatu ziren, jendetza ibili zen une askotan... Baina zer egin da ondo? Ba al da hobetzeko ezer? Ziur galdera horien inguruan zeresana izango dutela herriko jaietan antolakuntza lanean parte hartu dutenek edota baita giroaz gozatu ahal izan duten herritarrek ere.

Batzuentzat zein besteentzat, festen ebaluazio bilera antolatu da. **Hitzordua, datorren asteartean, uztaileak 21, 19:00etatik aurrera Udaletxean.** Ekitaldi irekia izango da, beraz, aipatu bezala edonork parte har dezake, igaro berri diren Santixabelak ardatz izango dituen bilkuran.



IRUDIAN, JAIETAKO MUS TXAPELKETAKO GARAILEAK ETA AGIRRETXE FUTBOLARIA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinaatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

UDALAK EGINDAKO LAN-DEIALDIA **5. OR.**

A GRIPEA DUEN NESKA HOBETO DAGO **8. OR.**

JAIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA **10. OR.**

ORGANOA ERABERRITZEN DIHARDUTE **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERRAZKIN
Igeltzeritza S.L.
 Tel.: 649 435 470
 Faxa: 943 372 679
 K./ Nagusia 47. Behea A.
 20170 USURBIL

ZUBIALURENEAN USURBIL
 i l e a p a i n d e g i
 mistoa
 943361951

LATAILLADE
ITURGINTZA
 GASA BEROKUNTZA
 MANTENIMENDUA ETA
 KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
 Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



LUIS ARANALDE

Bazen garaia!!

Lehenengo larunbatean burutu zuten Gasteizen ospakizun berezi bat: Gerra Zibilean hil zituzten 14 apaizen aldeko hileta hain zuzen; gure Komunitate Autonomoko lau Gotzainak han ziren eta Miguel Asurmendik zuzendu zuen. Gasteizko katedral berria gainezka zegoen. Zergatik zeremonia hori 70 urte igaro ondoren? Zentzurik ba al zuen?

Bai eta handia. Duela urte eta erdi pasatxo 498 martirien Beatifikazioa (kanonizatzeko edo santu deklaratzeko lehen pausoa) egin zen Erroman. 1936-1939 gerran hil zituzten beatifikatutako horiek; eta batzuk gure elizbarrutikoak ziren. Baina, beste hamalau apaiz ere hildakoak badira "gurutzada" deituriko gerra negargarri horretan eta horiei ez zitzaizkion egin zegokien hiletaluzkizunik, "isilpera baztertuak" izan ziren eta kasu gehienetan ez zen haien heriotza erregistratu Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian. Horien artean, Tolosa inguruak garenontzat, Jose Ariztimuño "Aitzol" dugu kuttunena. Kazetari eta idazle ere izan zen, "Jakintza" aldizkaria sortu zuen, euskararen alde lana erruz egin zuen. Donostiako Ondarretan espetxeratu eta Hernaniko kanposantuko hormaren kontra jarri eta fusilatu zuten.

Hamalau apaiz hauetako batzuegatik gezur galantak ere zabaldu zituzten frankistek: noski, trintxeretan armak eskuetan zituztela ibili omen zirela, jende asko hil zutela eta abar. Egia zera da: apaiz hauek gudarien kaperau bezala ibili zirela; erreketeeek ere beren gidari espiritualak izan zituzten, baina horietatik ez da ezer horrelakorik zabaldu inoiz.

Beraz, jende askok gure Gotzainei eskatu zien bezala, ez al da, berandu bederen, apaiz hauen memoria garbitzeko garaia iritsi? Eske horri erantzun nahi izan die gure Gotzainek ospakizun nagusi horren bidez. Beren hitzak erabiliz, "egia zerbitzatu nahi

izan dute, hori baita justizia, bakea eta adiskidetzera eraikitzeko oinarri bakarra. Ez dute zauriak berriro irekitzea nahi; alderantziz, zauriak sendatzen edo leuntzen lagundu nahi dute eta ahaztuak edo baztertuak izan direnei duintasuna aitortu". Barkamena ere eskatu dute denbora horretan guztian Elizak izan duen isiltasunagatik; "hain isiltasun luzea ez da bakarrik ez egiteko bat izan, baizik eta baita egiari, justiziari eta karitateari egindako huts egite bat ere".

Elizaren zenbait sektoreentzat eta Vatikanarentzat bereziki, alde batean eroritakoak beatifikazioa ere merezi izan dute, hau da, ia santu deklaratu dituzte. Irabazleen bandoan hildakoak ohore guztiak, galtzaileen alderdian eroritakoak, ahaztuak. Batez ere beatifikatze horrek sortu zuen kristau askoren artean sekular harridura, espantua. Lehen idatzi nuen kanonizazioak anakronismo huts iruditzen zitzaidala; kasu honetan bidegabekeria ere izan da. Elizaren kanonizazioak ez du sinesgarritasunik izango kanonizazio irizpideak aldatzen ez dituzten bitartean. Santu da, ebanjelioak esaten duen bezala, "bihotzez pobre izan dena", "bakegile izaten saiatu dena", "justiziaren gose eta egarri izan dena"; eta hori, sinestudun edo sinesgabe izan, ateo nahiz agnostiko, homosexual nahiz heterosexual.

Apaiz horietako bat Martin Lekuona zen, Hernanin exekutatu 28 urterekin. Bere iloba Andoni Lekuonak kantatu zituen bertso batzuk. Honela zioen:

"Gidariak izan ziran / egin zuten hamaika lan.

Gure senide bihotzakoak / gerrak zituen eraman;

Bizia ziguten eman. / Gogoan dezagun izan".

Gure apaiz hauek ez dakit beatifikatu behar ziren edo ez; baina, gutxienez, merezi zuten duintasuna aitortu zaie. Bazen garaia!!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

NOAUA!k datorren errausketaren neragin grafikoa ikusi eta gogoratu naiz Udarregiko irakasle batek esandakoak.

Ez da denbora asko urtero bezala 60 ikaslerekin Lizarra ingurura joan zirela eta egunari aurre egiteko mahai inguruan otordua egin ondoren, irakasleak ikasleei mahaia jaso egin behar zutela esan eta bat-batean ikasleak gai bakoitza bereiztuaz lau pilotxo egin zituztela mahai gainean.

Begira zegoen jendeak ikasleen jokabidea ikusirik "están bien educados" esanez inguratu zitzaizkion irakasleari, eta berak "nosotros no, el pueblo los ha educado" erantzun zien bertakoei. Erantzun hori ematean "¿cómo es eso?" galdetu zioten irakasleari, eta berak Usurbilen daramagun atez ateko

Ikasleak irakasle

bilketaren berri eman zien begira zeuzkaten gizon eta emakumei.

Jakin minez erantzun zituzten irakaslearen azalpenak eta harriduraz ikasleen txukuntasuna. Bat batean ikasleak bertakoengana hurbildu eta "¿a dónde echamos esto?" galdetu zietenean, bertakoak konturatu ziren ez zeukatela Udarregiko ikasleek egingandako organikoa, plastikoa, papera eta erreusa bereiztuko zuen ontzi nahikorik eta ikasleen erakustaldi osasuntsuagoren aurrean harridura handiagorekin gelditu ziren bertakoak (...).

Hitz hauekin ez dut Usurbilgo biztanleria besteen gainetik jarri nahi, baina herritarren ahalegina goraiatu bai, oztopo (Udalaren gainetik dauden administrazioa-

renak, ekonomikoak, toxikoziozkoak...) guztiei aurre egiten dio herri xeheak. Usurbilgo Udalaren (alkatea buru) laguntza ezinbestekoa izan da usurbildarrentzat, eta bere esker ona azalduz, biztanleok sortzen ditugun hondakinei tratamendu askoz egokiago eta hobeago baten aldeko apustu jatorra egin dugu eta aurrerantzean etor daitezkeen oztopoei ere aurre egiteko prestuago gaudela ikusten dut usurbildar oro.

Erronkak merezi duelakoan nagoelako errauskailurik ez hemen eta ez inon oihukatuz, bai biztanleonek osasunari eta bai atez ateko bilketa selektiboari esaten diot. Eutsi goiari eta aurrera bizikidetzera osasuntsuan.

Orkatz*

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Lau postu betetzeko lan deialdia egin du Udalak

Gipuzkoako Foru Aldundiak lau pertsonen kontratazioak egiteko diru-laguntza eman du, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programaren baitan. Kontratazio hauek sei hilabetez eta lanaldi osoz burutuko dira.

Ezaugarri orokorrak

- Lasarte-Oriako Enplegu Bulegoan izen emanda egotea.
- Usurbildarra izatea.

Bi igeltsero ofizial

Eraikinen eraikuntzan nahikoa esperientzia eta ezagutza izatea.

Teknika hauek ezagutu eta menperatu beharko ditu:

- Adreiluzko eta blokezko trenkaden eraikuntza.
- Hormigoizko ateburu eta leiho buruak eraiki.
- Hormak zarpeatu eta axuleiuk jarri.
- Zoruak berdindu eta zoruuko plaketak jarri.

- Instalazioak errezibitu eta erretenak prestatu.

- Eskaiolazko sabaia errematatu.
- Gremio desberdinei laguntza eta erremateak.

Igeltsero laguntzaile bat

Eraikinen eraikuntzan laguntzaile bezala esperientzia. Ezagutza hauek izan beharko ditu:

- Masa egiten jakitea.
- Dunper eta hormigonera erabiltzen jakitea.

Ingurugiro teknikaria

- Ingurugiro zientzian lizentziatua izatea.

- Biologoa edo kimikari lizentziatua izatea eta/edo ingurugiro gaietan prestakuntza osagarria izatea.

Lau postu hauetan

lehetasuna izango dutenak

- Aurreko sei hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu dutenak.



BI IGELTSERO OFIZIAL, IGELTSERO LAGUNTZAILE BAT ETA INGURUGIRO TEKNIKARI BAT BEHAR DITU UDALAK.

- Langabezia laguntzarik edo prestaziorik jasotzen ez dutenak.

- Familia karga handiagoak, eta familia errentako ratio txikiagoa dutenak.

- Emakumea edo pertsona desgaituak direnak.

- Azkeneko lan harremana, enplegu eskaintzaren dataren aurreko urtean amaitu dutenak.

Betekizun hauek betetzen dituztenek eskaera bat egin beharko dute udaletxean, enplegu sustapeneko bulegoan, 2009ko uztailaren 22a baino lehen.

Ika-mika !

Argudiorik ezean gezurra zabaldu

Erraustegizaleek argudio guztiak galdua gezurrak eraikitzeari ekiten diote behin eta berriz. Erraustegiaren aurkako organikoaren bilketa egiteko exijitzen hasi ginenean, erraustegizaleek beraien proiektu pilotoa abiatu behar izan zuten. Horrela konpostagailu gutxi batzuk banatu eta herri gutxi batzuetan 5. edukiontzi famatua jarri zuten. Arrakastarik ez izatea komeni zitzairen, erraustegiaren beharra justifikatzeko eta desinformatzen hasi ziren. Ezin omen zen ez sukaldatutako janaririk, ez haragirik konpostatu, barazki freskoak besterik ez. Usurbilen organikoaren bilketa abiatu eta organiko gutzia konposta zitekeela agerian jartzean, bapatean Txan magoa balira bezala "bigarren fasea" deitu ziotena atera zuten txapeletik. Orain bai, orain Gipuzkoan zehar biltzen den organiko gutzia konposta daiteke.

Gero, Atez Atekoak ekarriko zigun apokalipsia asmatu zuten. Kiratsak herria hartuko zuela, arratoiak ugarituko zirela, jen-

dea nahastuta ibiliko zela zer-noiz atera ezin jakinda... Usurbildarrok azkar asko ikusi dugu hori gutzia gezur hutsa zela.

Erraustegiari alternatiba eraikitzeo egindako urrats bakoitzari gezur berriekin erantzuten diote bidea oztopatu nahian. Partzuergoa eta Diario Vascoren (2009/07/04 2 eta 3 orriak) eskutik etorri da azken gezurra. Lapatzeko plantako datuak manipulatu eta ondorengo ondoria heldu dira: "el quinto contenedor es más eficaz que el puerta a puerta de Usurbil". Ez da fenomeno bat izan behar, argitaratutako datuak begiratu eta tranpa non dagoen ikusteko. Ñabarduratan sartu gabe, Usurbilek (6.000 biztanle) hilero 40.000 kilo organiko jasotzen dituela ikus daiteke. 5. edukiontziaekin, herrietatik arrakastatsuenak, Azpeitiak, Usurbilgo biztanleria bikoiztuta (13.000 biztanle inguru) laurdena ere ez du jasotzen, hau da, 10.000 kilo. Kalkulua biztanleka egin ezker, Azpeitian 5. edukiontziaekin, Usurbilen atez atekoarekin baino 8 aldiz

gutxiago jasotzen dela ikus daiteke. Erraustegizaleentzat 8 aldiz gutxiago jasotzea "mas eficaz" da. Partzuergokoei eta Diariokoei biztanleria kontutan hartzea "ahaztu" zaie nonbait. Kontua da, dirua eta hedabide nagusiak, jende berak kontrolatzen dituela, eta gezurrak gezur, titularrak irakurtzen duenak errealitatearen oso bestelakoa den "informazioa" jasotzen dutela. Bilatzen duten bakarra, diru-botere gehiago kudeatu ahal izatea da, herritarren diru eta osasunaren kontura bada ere.

Bi ondorio atera daitezke. Bat: beraien proiektua gezurrekin defendatu behar badute, beraiek ere, arrazoirik ez dutela ikusten dutelako da. Erraustegia eraikitzeo ez dago beraien diru gosea beste arrazoirik. Bi: zentzuzko irteera bakarra erraustegia geraraztea da. Hori egitea herritarrok lor dezakegu mobilizatu eta iritzi publikoa kontrolatzeko erabiltzen dituzten hedabideei bizkar ematen badiegu.

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Hango eta hemengo festak



Batzuk oporretan, besteak hauen zain, beguzkia (ateratzen denean) berotzen, hondartzak betetzen...

Festak, festak, festak... Ikasturtearen amaierarekin batera sartzen gara festen zurrunbiloan. Festen gaiarekin jarraituz, denok dakigu batzuk ondo pasatzeko beste batzuk lana egin behar izaten dutela eta aurpegi ona jarriaz gainera. Adibide garbia Kalezarren izan dugu eta baita Santixabeletan ere. Hauek dagoeneko pasa dira eta beste auzoak beraien txandarako prestatzen ari dira lanean, baina aurten zerbait arraroa gertatzen ari da suarekin: San Joanetan, Kalezarren eta Santuenean adibidez, norbaitek, denbora baino lehen sua piztu zuen eta herriko maskota ere goizegi erre da Santixabeletan, beraz, beste festak antolatzen ari zaretenok, ahaztu ezazue sua; edo bestela ondo zaindu traka horiek.

Gure auzoan bi elkarteak lanean dabilta, ahal dutena egiten guk ondo pasatzeko, baina eguraldia ezin izango dute antolatu eta pena da, hainbeste bilera, dei eta buruhausteren ondoren, eguraldiak dena zapuztea. Noizko aterpe, frontoi... hori? Bale, bale, krisian gaude... (oraingo-



an behintzat aitzakia ona dute).

Bukatzeke txoko hau aprobetxatu nahiko nuke jende askori eskerrak emateko, zer moduz nintzen galdetzeagatik. Barkatu festetan "kale" egiteagatik, baina ezin denean, ezin da. Beste festa batzuetan ikusiko gara, batzuek ez duzue nahikoa baina... Eta ondo pasa oporretan, konturatzerako alde egingo dute-eta!

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Zen



Bilatu diot atez-ateko hondakinen bilketa honi beste alde on bat: kontzentrazioa. Izan ere bereizketa ia perfektua egiteko oso kontzentratuta egon behar da. Eman dezagun bazkal ondoren hondarrak mahai gaineratik jasotzen ari garela. Garbigailuan sartu aurretik, gai ezberdinetako hondakinak pilatzen zaizkigu: bazkaria

prestatzeko erabilitako janarien azalak, material gutzitako poteak, plastikozko edo beirazko botilak, olio hondarrak, janari hondarrak..., Hau dena txukun txukun bereiztu eta gai bakoitza dagokion poltsa edo zabor ontzira botako ditugu. Dena ondo egiteko buru-belarri aritu behar dugu. Horregatik diot baduela beste alde on bat, orain arte ikusitakotik at. Bada, bereizketan kontzentratzen bagara, egunean zehar, segundue-ro, buruan bueltaka dabiltzan arazoak eta buru hausteak desagertzen dira. Horretan datza "Zen", ekialdean jatorria duen pentsaera honek. "Zen", hitzak kontzentrazioa esan nahi du, "orain eta hemen", egon kontzentratuta.

Bestalde eta gai honekin lotuta, esan didate, kalean zabor-ontzi gutxi daudela. Eta egia esan, toki batzuetan nabarmena da hauen falta, adibidez erreka inguruan, edo umeek *txutxeak* jaten dituzten tokietan.

ATXEGALDE

M^AJESUS URBIETA

Auzoko parkea

Udara badoa aurrera eta Santixabelak ere pasa ditugu. Aurten, jende ugari ibili dela esango nuke gainera. Eguraldiaren laguntza ere izan genuen. Haurren eguna bikaina izan zen. Alde batetik aipatu behar tren txutxuaren arrakasta, polita izan zen benetan. Bestetik berriz, aukera ederra izan zuten haurrek ekintza ezberdinetan parte hartzeko eta egun polit bat pasatzeko.

Santixabel egunean ere Meza Nagusi bikaina izan genuen. Bertan, organo berrituaren inaugurazioa ere izan genuen eta Juan Luis Atxegak eskaini zizkigun doinu ederrak. Ezin ahaztu Irrii abesbatzak abestutako abestiak. Zorionak partehar-tzaile guztiei eta batez ere festak antolatzen aritu diren guztiei. Denetik entzun arren esan dezakegu, festa onak izan ditugula aurtengoan ere.

Gaiak aldatuta, eta auzoko txokoei erreparatuta, haurren parkeak behar duen konponketak aipatu nahiko nituzke. Auzotarrok aspaldian dabilkigu gaia ahotan eta bertako txirris-ta, kolunpio eta jolasek berritu bat behar dutela uste dugu. Aspaldiko urteetan ez da ezer egin eta auzoko haurrek bertan geratzeko ere aukerarik ez dute. Ea ba arduradunek entzuten gaituzten eta gauzak aldatzen hasten diren.



AGINAGA

M^A ANGELES ARRUTI

Erriberako bidea



Orain dela gutxi Udalak aginduta, hasi ziren Aginagako erriberako bidea bukatu nahian. Mapildik hasita zegoen eta Txokoaldeko zubira arte egiteko proiektua zuten. Hau jakinda, pentsatu nahi dut, Udalak lanak egiten hasi aurretik, lurjabe guztiakin adostasuna lortua izango zuela. Kontua da, hasi eta erdia eginda zuenean arazoak sortu direla. Lurjabe batzuk, traktorea bide erdian jarrita lanak oztopatu nahian eta besteak beraien jabegoko lurrik ez dute hartuko esanaz. Berriz ere hor geratu da bidea bukatu gabe.

Nire ustez, bide hori herritar eta batez ere aginatar guztiarentzat onura da. Non dago aginagarren borondatea herriaren onerako den bide hori egiteko? Den denok, lurrak eta jabegotzak hemen utzita joan beharko dugu. Ederrak gaude mundua konpontzeko!

Arazo hauek denon borondatearekin konpondu beharok lirake baina, Udalak ere denontzat behar lituzke neurri berdinak. Honen harira, gogora ekarri nahi nuke, ez direla izango lehenengo herritarrak interes orokorra duten proiektuentzat lur zati txiki baten jabetza utzi



behar dutenak eta Usurbilen lehen ere badirela lurrak espropiatu zizkietenak.

Ea ba konturatzen garen, denon onerako izango dela Aginagan, Mapiltik hasi eta Txokoalderainoko bidea edukitzea pasioan ibili ahal izateko eta ia arazoak konpontzen diren eta bidea egiten duten.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Eskerrik asko



Ez da lehen aldia izango, eta ezta azkena ere, jaiak antolatzen dituzuenoi eskerrik ematen dizkizuetena. Bai, eskerrik asko zeren zuek bakarrik dakizue zenbat kostatzen den gainontzekoak, eta zuek ere bai noski, ongi pasatzeko aurretik, momentuan eta ondoren zenbat lan egin behar izaten den.

Baina, eta nahiz eta hori guztia jakin, halere esker txarrekoak izango gara eta beti izango dugu besapean kexu edo eta kritikaren bat; hau zergatik egin dute horrela, hobe litzateke hala, honakoa ez dute egin... Nire lagun batek arrazoia du esatean egiten duzuna egiten duzula ere, beti izango duzu erdia zure kontra. Hor konpon, kexu denak badaki zer egin behar duen hurrengoan, bera joan antolatzera!!

Auzokoak izan ditugu lehen jaiak, herrikoak ere pasa ditugu, eta ondo pasa gainera, eta behin martxa hartu ezker ezin gera gintezke San Praixkuak pasa arte!

Gainontzean esan, astekariak beste urte bat burutu duela eta orain oporrak egitea tokatzen zaiola. Ea udak gozatzeko aukera ematen duen eta irailean ostera prexko-prexko bueltatzen garen.

Ondo pasa uda eta datorrenera arte.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Festa eta komunikazioa

Larunbatean festa ederra eskaini zigiten herrian errausketaren kontrako koordinadorakoek. Eguna ekintzez oparota izan zen: magia, kirola, bertsolariak, musika eta dantza, protesta eta aldarrikapena, jana eta edana... Koordinadorakoek (tarte-an Unai zubietarrak) jai egitaraua bikain josi zuten eta zubietar askok borondatezko lan handia egin zuten. Eskerrik asko denei.

Baina hain festa handiak hartzaile gehiago behar zuten, boluntarioen lan handi hori jende gehiagok ikusi behar zuten, gipuzkoar gehiagok jaso behar zuten Zabalgarbiko kutsadura-arazoaren berri... Hondakinen kudeaketa arrazionalagoaren alde sinatu duten 35.000 lagun horietako askok ere Zubietan behar zuten.

Eta eguraldi kontuak kontu, festaren aurretiazko komunikazioak huts egin zuten. Ez naiz soilik kea saldu zale, baina kerik gabeko surik ez da. Eta diru eta jende falta tartean egonik ere, gizarteko elkarte eta taldeok badugu nondik ikasi; eredutzat Usurbilgo Udala atez atekoarekin egiten ari den komunikazio lan bikaina hartuko nuke. Zorionak eta ea hurrengorako hortik ere zerbait kutsatzen zaigun.



A gripea duen gaztea etxean dago eta hobera egin du

A gripeaz kutsatutako neska gazteak hobera egin du azken egunetan. Ohiko gripearen antzeko gaixoaldia igaro du eta ez da larritzeko moduko egoeran izan. Ziortzako kanpaldian zegoen, Peñaloscintosen (Errioxa), A gripea antzeman ziotenean. Gainontzeko haurren portaera oso ona izan zela adierazi digute Ziortzako kideek.

Pasa den larunbatean, Usurbilgo 12 urteko neska usurbildar bati A gripea (edo A/H1N1 bezala ere ezaguna den gripea) antzeman zioten.

Egun batzuk lehenago, uztailearen 6an, Errioxako Peñaloscintos herrira joan zen beste 40 lagunekin batera, Ziortzako kanpaldian partehartzera.

Hiru egunetara, uztailearen 9an osteguna, sukarra zuten neska gazteak eta kanpaldiko begiraleek Peñaloscintoseko ambulatiora eraman zuten. Analsiak egin eta A gripea izan zitekeelakoan, badaezpada kanpaldian bertan isolatua edukitzeko aholkatu zuten osasun arduradunek.

Egoera hau, ordea, oso ondo eraman zuten gainontzeko gazteek. "Oso ondo portatu dira", hala aitortu digu Maider Makazagak, Ziortza aisialdi taldeko arduradunetako batek. Gazteen jarrera bi egun horietan primerakoa izan zela aitortu digu.

Kanpaldira itzultzeko gogoz

Larunbatean, uztailearen 11n, A gripea zuela baieztatu zuten Errioxako osasun arduradunek. Albistea jaso eta



INOIZ BAINO HAUR ETA GAZTE GEHIAGO ANIMATU DIRA AURTENGO KANPALDIETARA.

berehala, etxera ekarri zuten 12 urteko gaztea.

Neska gaztea ezularekin baina hobeto sentitzen zen hurrengo egunean bere etxean eta kanpaldira itzultzeko gogoz. Hala aitortu digu Maider Makazagak. Kanpalditik etorri zenetik hona hobera

egin du, beraz. Kanpaldira itzuli nahi zuten baina etxean jarraituko du.

Errioxako osasun arduradunek uste dute Usurbildik joan zela kutsatuta, eta Peñaloscintoseko kanpaldian igarri zituela A gripearen ondorioak. Baina hori ezin da gutziz baieztatu.

Kanpaldiko haurren gurasoak eta Peñaloscintoseko herritarrak, lasai

Albistearen berri izan eta berehala, gurasoekin harremanetan jarri ziren Ziortzakoak. Gurasoek bezala, Errioxako herri txiki honetako herritarrek ere lasai hartu dute albistea.

Izan ere, egoera kontrolpean dago eta, gainera, osasun arduradunak jarraipen zehatza egiten ari dira kanpal-

dian. Beraz, nahiz eta kasu gehiagorik ez den eman, segimendua egiten ari dira.

Positiboa eman duen kasuari dago-kionez, Errioxako osasun arduradunak Usurbilgo osasun etxearekin jarriko dira harremanetan, eman den kasuaren eboluzioa gertutik jarraitzeko.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

“Ondo daude denak”

Horrelako kanpaldietan ohikoak izaten dira birusak. Aurten ere, Ziortzako batzuk goragalea eta beherakoa pairatu behar izan dute. Esan bezala, normala izaten da horrelako kanpaldietan. Peñaloscintosen eta gainontzeko kanpaldietan. Ezer larririk ez. A gripearen presentziak, ordea, hasiera batean ezustea eta larritasuna eragin zuen. Baina Ziortzako arduradunek diotenez, haurren portaera oso ona izan da.

Ziortzakoek ondo jokatu dute hasieratik: kasua baieztatu eta berehala, gurasoei informazio zuzena eman zaie. Kanpaldiko gainontzeko gazteek ere, hasierako mesfidantzak gainditu eta gero, gizatasun lezio ederra eman dute, gaixorik zegoen lagunarekin nola portatu diren ikusita.

Medikuen bisita, etengabea

Errioxako osasun arduradunek uneoro gomendatu diete Ziortzakoek kanpaldiarekin jarraitzeko, egoera kon-



ZIORTZAKO KANPALDIAN EDERKI IBILI DHI DIRA. ARGAZKIA IAZKOA DA.

trolean egon delako uneoro.

Maider Makazagak astelehen honetan telefonoz esan digun bezala, “ondo daude denak. Kanpaldiarekin jarraitzeko aholkatu digute gainera”.

Badaezpadako neurri gisa,

Errioxako osasun arduradunak bi egunetik behin kanpaldira hurbiltzen ari dira.

Gainontzeko gazteak, beraz, normaltasunez jarraitu dute Peñaloscintoseko kanpaldian.

A gripea, "kontrolpean"

Maria Teresa Fernandez de la Vega Espainiako Gobernuko lehendakariordeak "lasaitasun" mezu bat helarazi nahi izan zuen astelehen honetan. A gripearen "egoera kontrolpean" dagoela esanez.

De la Vegak eta Trinidad Jimenez Osasun eta Gizarte Politikako ministroak elkarrekin eskaini zuten prentsaurrekoa. Birusaren inguruan mintzatu ziren eta gripe honengatik Espainian bi pertsona zendu eta 969 lagun kutsatu direla baina horietatik 8 bakarrik izan direla egoera larrian.

A gripea orain oso arrisksua ez den

arren, apirilaren 26an hasi zen "osasun alerta" oraindik indarrean jarraitzen duela gogoratu zuen Trinidad Jimenez osasun arloko ministroak. Halaber, "konfiantza" eskatu zuen "edozein egoeraren aurrean erantzuteko prest daudelako". Horretaz gain, Munduko Osasun Erakundeak ezarritako protokoloa jarraituz, herritarrek euren ohi-turak ez dituztela aldatu behar adierazi zuen Osasun ministroak.

Txertoak, urrirako prest

Osasuneko bozeramaileak urrian txertoak prest izateko akordioaren

negoziaketa itxi dutela adierazi zuen. Novartis eta GlaxoSmithKline laborategiak izango dira hornitzaileak eta 266 milioi euroko kostua izango du enkargu honek.

Gaixotasun honi aurre egiteko 37 milioi txerto erosi dituzte, bi pertsona bakoitzeko. Horietako 27 milioi autonomia erkidegoen artean banatuko dira eta beste 10 milioi erreserba moduan gordeko dituzte.

Pandemia honen inguruan "kontrolpean, zorroztasunez eta gardentasunez" jokatu dutela adierazi zuten Espainiako Gobernuko iturriek.

Ibai Arrietak irabazi du Santixabel jaietako argazki lehiaketa



Zaldi lasterketan egindako argazki honekin nagusitu da Ibai Arrieta argazkilaria. 100 euroko saria, beraz, Ibai Arrietarentzat izango da. Beste bederatzi lehiakide izan ditu: Iñaki Zugasti, Jon Lopez, Joseba Pellejero, Manu Muñoz, Patxi Pagola, Txubitxo, Mikel Bengoetxea, Alfonso Vidal, Begoña Izeta eta Ainhoa eta Ikerrek aurkeztutako argazkiak. Lehiaketara aurkeztu diren esanguratsuenak bildu ditugu bi orriotan.



Joseba Pellejero



Txubitxo



Jon Lopez



Patxi Pagola



Ainhoa eta Iker



Mikel Bengoetxea



Begonia Irujo



Manu Muñoz



Iñaki Zugasti

Elizako organoa eraberritu dute, bere ehungarren urtemugan

Historia luzea duen organo bakarretakoa, gertu, Salvatore elizan dugu. Erlikia hutsa beraz, baina agian ez oso entzuna. Herritarren artean ezaguturazteko ekitaldi sorta prestatu dute antolatzaileek urtea amaitu artean. Emanaldiak eta bisita gidatuak besteak beste.

NOAUA! Bi urtetik gora iraun dute berrikuntza lanek. Zuentzat nahi edo uste baino gehiago?

Juan Luis Atxega. Uste baino gehiago iraun dute. Hasiera batean, iazko Santixabeletarako amaituak behar zuten lanek. Baina atzerapena aldi berean aurrerapausoa izan da, hirugarren teklatua erantsi baitiogu organoari, garai batean zen bezala. Izugarrizko ahalegina egin da, bi koru berri ere egin dira, instalakuntza elektrikoa berritzearekin batera.

LAN ORDU UGARI

“Milaka pieza dira, instrumentu mekaniko bat den heinean eta horrek lan handia suposatzen du”

N. Piezaz pieza desmuntatu, berritu eta piezaz pieza berreraiki da organoa?

J. L. A. Milaka pieza dira, instrumentu mekaniko bat den heinean eta horrek lan handia suposatzen du. 2.600 hodi



ORGANOAREN KONPONKETA LANAK EZ DIRA AMAITU. ARGAZKIAN, LANEAN DIHARDUTEN LANGILEAK.

inguru ditu. Hodi bakoitzak modu autonomoan funtzionatzen du. Hamasei lagun aritu dira lanean, baina ez dira erabat organo honekin hiru urtez aritu. Halere, milaka orduz lan egin dute. Prozesuko azken pausoa, harmonizatzea izan da, hau da, hodi bakoitzari bere soinu propioa, soinurik ederrena ateratzea. Lan horrek soilik 1.300 bat ordu suposatu ditu.

N. Organoa ikustera datorrenak zer nolako aldaketak sumatuko ditu?

J. L. A. Egia esan, herri mailan jende gutxik ezagutzen zuen organoa. Fatxadari begiratuta, beti 30 hodi ikusi

izan ohi dira. Baina aipatu bezala, 2.600 inguru ditu. Organoa ezagutzen dutenek, goiko koria luzatu eta organistak jotzen duen lekua biratu egin dela nabarmenduko dute. Orain, organo joleak organoari begira jotzen du, horrek suposatzen duen onurarekin, lehen baino soinu askoz ere landuagoa iristen baitzaio organo joleari. Gainera, organoa eta abesbatzak goi alde horretan sartzeko aukera izango dute. Dena den, espero dugu denborarekin jendeak gehiago ezagutzea, bertara igotzea eta denborarekin ate irekiak izango ditugu urtean zehar, nahi duenak igo eta ikus dezan.

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283
-Oro har libratze-lanak
-TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozategia
LABE-GOXO

Juan Luis Atxega, organo-jolea Salvatore elizan “Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertu bat hemen egingo da”

NOAUA! Mendeurrenari begira, ekitaldi sorta bat antolatu duzue. Ospakizun aldia organoa bera herritarren artean ezagutarazteko apustu gisa defini liteke?

Juan Luis Atxega. Nahitaezkoa zen, halako inbertsioa egin eta ondarea izanik, erakustera ematera, herri mailan batik bat. Jende dezente jabetzen da organo handi eta eder bat dugula. Adibidez, azken bi asteotan hiru sendi oso etorri dira organoaren prozesu osoa ikustera Frantziatik. Organoen inguruan ibilbide turistikoak egitean, Usurbilgoa naizela esaten dudanean, segituan aipatzen dute organo egilearen izena. Antolatu diren ekitaldien barruan, Santixabel egunean inaugurazio ekitaldia egin genuen.

BITXIKERIA UGARI

“Karlitek su emango zioten beldurratik, hilabeteetan herritar batzuk organoa zaintzen jardun zuten”

Musika hamabostaldiari lotuta, kontzertu bat ere hemen eskainiko da. Estilo erromantikoko organo hau, Euskadiko lehenengoa, eta estatu espainiar mailan bigarrenengoa da. Estatutako teklatu zabalgarri handienak ditu.

N. Usurbilgo elizara ailegatu artean,

organoak bidaia luzea egin zuen. Nondik abiatzen da bere historia?

J. L. A. Egilea oso pertsona eszentrikoa izan zen, oso musikazalea, bere emaztea bahitzeraino. Gutxienez sei organo egin zituen. Usurbilgoa baino handiagoak tartean. Aberatsa zen eta apetatsua. Bizi zen gazteluan zuen organoa kendu eta Usurbilen dugun hau egin zuen. Oso berezia zen, saloiko organoa, 32 soinu efektuekin; suhiltzaile sirena, ontziarena... Musikari handiak egon ziren gazteluan. Gerora, gerra garaian, kiebra egoeran amaitu eta gaztelua eta organoa salgai jarri zituen. Organoa Bastide izeneko bati saltzen dio. Berak organoaren zati bat beretzat hartu eta gainerako guztia saldu egin zuen. Zatarain familiak elizako beheko korua egin zuen hiru urte lehenago eta haiek erosi zuten organoa. Istilu artean ekarri zuten 1921ean, gurdi karroetan.

N. Hamarkada hauetan, herriko hainbat pasarteren lekuko izan da?

J. L. A. Teodoro Aranburuk asko daki organo honetaz. Bere aitona organista zen, Udarregi bertsolariari transkripzioak egiten zizkionak. Badira bitxikeria gehiago.

N. Tartean, orain bi urte egur azpian agertutako materiala?

J. L. A. Bitxia zen, organo azpian zegoen biltegia. Denetarik zegoen; garai bateko santu irudiak, liturgiako erabi-



JUAN LUIS ATXEGA, SALVATORE ELIZAKO ORGANOAREN ONDOAN.

litako materiala... Artzapezpikutzatik teknikari bat etorri eta hark baloratu zuen zerk balio zuen eta zerk ez. Horien artean agertu zen, ezkutalekua izan zena. Gerra garaiko babarrunak izango zirenak, eta baita gerra osteko euskaldunen berpizkunde garaian, Francori aurre egiten hasi zirenean, komunismo eta sozialismoari buruzko zenbait dokumentu, oso arriskutsuak baitziren edukitzea eta han ezkutatuta agertu ziren. Bilduma handiena Lazkaoko artxibategian dago. Bestalde, karlitek organoari su emango zioten beldurratik, hilabeteetan herritar batzuk ondarea mantendu nahian, organoa zaintzen jardun zuten.

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Solariuma L'ORÉAL
Izoli Lizarralde
• Ilea-paindegia • Estetika Zentroa
Zubiaurrenea, 5-B 943 361 971

Herri merkataritza indartu asmoz, sektoreari buruzko diagnosia egin da

Orain arte ezezagunak ziren herritarren erosketa ohituraren edota saltokietako arduradunen iritziak bildu ditu Udalak bulztatuta, Siadeco Ikerketa Elkarteak egin duen diagnosian. Herriko saltoki txikiak babestu eta indartzea litzateke helburu nagusia. Emaitzak ostegun honetan, uztailak 16 aurkeztuko dituzte udalbatza aretoan, 13:30ean. Ikerketa elkarteko ordezkari Juanjo Allur ere bertan izango da.

NOAUA! Zein da zuen diagnosiaren abiapuntua?

Juanjo Allur. Herriko merkataritza eta ostalaritza sektorea zein egoeratan dagoen ezagutzeko diagnostikoa izango da; azpimarratu ordea, saltoki horiek kokatzen diren ingurunea ere kontuan hartuko dela. Usurbilgo erdigunearen elementu urbanistikoak aztertu beharrrak daude, biztanleriaren bilakaera eta etxebizitza berrien eragina, herriak duen dinamika edo bizitasun soziokulturala... Garai batean herrien erdiguneetan kokatzen ziren lanbideak (aroztegiak eta bestelako tailer txikiak) industri guneetara ater dira eta herri bezala Usurbilek lortu beharko luke erdiguneko merkataritza eta ostalaritza indartzea. Horregatik guztiagatik, diagnostikoak ikuspegi integrala du eta merkataritzaren biziberritzea Usurbilgo herriaren etorkizuneko garapenaren barnean kokatzea garrantzitsua iruditzen zait.

N. Diagnostia burutzeko zer irizpide hartu dituzue kontuan?

J. A. Eskaintza eta eskaria aztertzea. Eskaintza aztertzeke, Usurbilgo 100 establezimendutako arduradun eta langileak elkarrizketatu ditugu. Euren iritziak, beharrak eta proposamenak eza-gutzea izan da urratsetako bat. Eskaria aztertzeke berriz, zoriz aukeratutako Usurbilgo 400 etxebizitzetako herritarrekin lagin batekin lan egin da. Horri esker usurbildarren erosketa ohiturak zein diren ezagutu dira. Ikerlan horrek esango digu zein diren herriko komertzioaren indar gune eta hutsuneak,



SIADeco ARDURATU DA MERKATARITZAREN DIAGNOSTIKOA EGITEAZ.

herritarrek zenbateraino eta zergatik egiten dituzten erosketak herrian bertan edo herritik kanpo...

N. Elkarlana azterketaren gakoetako bat izan da, merkataritzako lan mahaia ere osatu duzue. Askorako eman al du?

J. A. Elkarlana garrantzitsua da eta plangintza hau aurrera eramateko egiten diren bilerekin nahiko genuke jendeak parte hartze aktiboa izatea eta nahiko genuke ere Usurbilgo merkataritza eta ostalariei ikusaraztea guztiak bat egin eta elkarlanean aritu behar dutela. Ez

dakit lortuko dugun.

N. Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza eta gune handiagoetakoak, zer modutan parekatu liteke arrain txiki eta handien arteko borrokarekin?

J. A. Arrain txiki askok, txikiak izanda ere, handien atzaparretatik ihes egiteko abilezia dute. Denda txikiak ere trebezia bera erakutsi behar dute beren negozioa aurrera ateratzeko ahaleginean. "Herri" komertziala da orain indartu behar duguna eta hori guztioi dagokigu, sektoreari, Udalari eta baita herritarro ere.

Merktari eta ostalariei zuzendutako bilera egingo da ostegun honetan

N. Orain, egindako diagnosia aurkezteko unea heldu da. Izaera parte hartzailea izango duen bilera antolatu duzue hilaren 16rako?

J. A. Bilera garrantzitsua izango da, hor aurkeztuko baita sektorearen egoeraz merkatariek zein balorazio egiten duten eta baita herritarren merkataritza arloko erosketa ohiturak zein diren ere. Merktari eta ostalariek bilera horretan parte hartzea nahiko genuke, hor esandakoak Udalari entregatutako zaion txostenean jasoak geratuko direlako.

N. Guztiak ez da hemen amaitzen. Fase berri bati ekingo diozue laster?

J. A. Behin diagnostikoaren berri izanda, Usurbilgo herri komertzioa eta ostalaritza biziberritzeko zein bide egin, zein bidelagunekin, noiz eta nork lagunduta zehaztu behar da. Plangintzaren fasea izango da hori eta Usurbilgo Udala eta sektorearen arteko elkarlanerako oinarriak eta zereginak finkatuko dira bertan. Egingarria eta bideragarria izango den plan bat diseinatzen serio ahaleginduko gara.

Usurbil FT taldeak bazkidetza kanpaina jarri du martxan

Usurbil FT taldeak zuzendaritza berria du. Ikasturtea amaitu zenean, ordezkorik ez zen azaltzen baina azken orduan hainbat lagun animatu dira eta gogotsu ekin diote lanari. Bazkidetza kanpaina jarri dute martxan.

Herriko gazteei futboleko aritzeko aukera eman nahi diete. Lan talde gogotsu bat osatu dute eta ideia zein egitasmo guztiak aurrera ateratzeko asmoz ari dira lanean.

Baina euren gogoia ez da nahikoa eta horregatik, "gazte, guraso eta, orohar, herritarren laguntza eta konfidantza eskatu nahi genuke". Bereziki, bazkide-tza kanpainaren bitartez.

Bazkidetza txartelak, 10 euroren truke

Uztailaren zehar, bazkidetza kanpaina bultzatu nahi dute. Futbol taldeko zuzendaritzaren ekimenez, 10 euroren truke bazkide txartelak atera dituzte.

Bazkideei, egindako ahalegina eskertzeko, Usurbil FTko zuzendaritzak jarduera ezberdinak antolatuko ditu denboraldian zehar: ume eta helduen jokoak Haranen edota zozketak.



10 EUROREN TRUKE EDONOR IZAN
DAITEKE USURBIL FT TALDEKO BAZKIDE.

Taldeak osatzen

Ekainaren 30ean kadete, jubenil eta nesken taldeak osatzeko entrenamenduak egin ziren. Parte hartu zuten guztiak eskerrak eman nahi dizkie zuzendaritza berriak. Ez hori bakarrik, "oraindik norbaitek Usurbil FT taldean futboleko ibiltzeko ilusioa badu, lehenbailehen zuzendaritzako norbaitekin harremanetan jartzeko eskatuko genioke".

Haimar Zubeldia bikain ari da Frantziako Tourrean

Euskatel-Euskadi taldea utzi eta Astana taldearekin fitxatu zuenean, bazekien zein izango zen bere betebeharrak: taldekako lana egitea. Geroztik, Armstrong zein Contadorrentzat aritu da lanean San Estebango txirrindularia. Talde osoa bezala, Haimar bera ere bikain aritu da. Pirinioako ederki asko gainditu ditu eta sailkapen nagusian 22. postuan da. Bigarren euskalduna da, Euskaltel-Euskadiko Mikel Astarlozaren ondoren.

Santiotan, bikotekako bizikleta lasterketa

Lasterketa bitxi bat antolatu da Zubietako Santiotan, bikotekako bizikleta lasterketa. Uztailaren 26an egingo da, arratsaldeko 17:00etan hasita. Zubietan, tankera honetan antolatzen den lehen lasterketa izango da.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Josue
Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
oraikuntza

943 360 321
943 360 321
943 360 321
943 360 321



ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tif 36 21 64
USURBIL

Autobus Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Lists bus departure times for Lanegunetan.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Lists bus departure times for Jaiegunetan.

LARUNBAT GAUETAN

Table with columns: Usurbil, Orio, Zarautz. Lists bus departure times for Larunbat Gauetan.

LARUNBAT GAUETAN

Table with columns: Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Lists bus departure times for Larunbat Gauetan.

Uztailaren 17an LANEGUNETAN berriz, Ostiralaren 09/06/22-09/09/14 larunbat, igande eta Jaiegunetan berriz.

Table with columns: Zarautz, Orio, Usurbil, Donostia, Donostia, Usurbil, Orio, Zarautz. Lists bus departure times for Astelehenetik Ostiralera Lanegunetan.

00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00:00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGAN * Astelehenetik eta Udako [09/06/22- 09/09/14] Larunbat, Igande eta Jaiegunetan

Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es

Tren Ordutegia

LURRALDEBUS ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL. Irteera Usurbil, Irteera Astigarraga. Astelehen-Ostiralera, Igande-Jaiegunetan. Lists bus departure times.

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL. Astelehenetik-Ostiralera. Usurbil to Urnieta. Lists bus departure times.

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA. Urnieta to Usurbil. Lists bus departure times.

TSST autobusak ZUBIETA • DONOSTIA. LANEGUNETAN, LARUNBATUETAN, JAIEGUNETAN. Lists bus departure times and contact info.

BUS-TAXI. Astelehenetik-Ostiralera. 891 630 64 35 96. Lists bus departure times for various stops.

Agenda !!

Uztailak 16 osteguna

- 13:30ean, udaletxean, herriko merkataritzari buruzko diagnosiaren aurkezpena.

Uztailak 21 asteartea

- 19:00etatik aurrera udaletxean, jaietako balorazioa egiteko bilera.

- Udalak egin duen lan deialdian izena emateko azken eguna (ikus 5. orrialdea).

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 16, osteguna

Gil, Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 17, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 18, larunbata

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Uztailak 19, igandea

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 20, astelehena

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 21, asteartea

Gil, Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 22, asteazkena

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Uztailak 23, osteguna

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Uztailak 24, ostirala

Gil, Nagusia 24, Lasarte

Uztailak 25, larunbata

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

Uztailak 26, igandea

Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbietako
kalea, 7 Hernani 943 552 941

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Datorren astean

hasiko dira Santio jaiak Zubietan

Uztailaren 24an, Santio bezperan murgilduko da Zubietako jai giroan. Herri afaria eta Kupelaren emanaldiak, astebete iraungo duten Santio jaiak hasiera emango diete.



UZTAILAREN 24TIK 31RA LUZATUKO DIRA SANTIO JAIK ZUBIETAN. JARRAIAN, JAIEN LEKUKOA URDAIAGAKOEI EMANGO DIETE.

Hortik aurrera, Zubietara gerturazten denak izango du zer ospatua. Proposamenen artean honakoak; iaz estreinako aldiz antolatuta, esperientzia errepikatzea erabaki dute Jai Batzordekoek. Zubietako II. Sagardo Eguna ospatuko da uztailearen 26an.

Horrekin batera, oilasko biltzera joateko irteera eta haurrei zuzendutako ekitaldiak antolatu dira, uztailearen 27 eta 28rako hurrenez hurren.

Gaupasan, Mendeku iTxua eta Deskontrol taldeak

Musika eskaintzari dagokionez, Laiotz, Gaueko Itzalak, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak igoko dira

oholtza gainera. Mendeku Itxua, Deskontrol eta Triki ta Keren emanaldiek lotuko dute uztailearen 30a, San Inazio, jaietako azken egunarekin. Zikiro jan eta errebote partidurekin, Dj eta suziri artean amaituko dira aurtengo Santioak.

Datorren NOAUA!ko zenbakian, San Estebanekin batera, Zubietako jai egitaraua zehatz mehatz.

Mikel Laboari idazteko liburua Sutegin

Mikel Laboari idazteko erregistrotako liburua ikusgai dago Sutegiko udal liburutegian. Maiatzaren 31n egin zitzaion omenaldian jasotako idatziak irakur ditezke eta, aukeran, lerro batzuk idatzi nahi dituenak ere, aukera osoa du. Sutegira hurbiltzea besterik ez du.

Odol emaien elkarteak, esker onez

Aurreko astelehenean, 34 izan ziren odola ematera hurbildu ziren lagunak. Hauetatik bi, lehen aldiz hurbildu ziren anbulatoriora. "Beraiei eta etorri eta ematerik izan ez zutenei ere gure eskerrak luzatzen dizkiegu". Hurrengo odol-ematea irailaren 7an izango da.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak
TABERNA

ETXEBIZITZA

- Gela argitsu bat alokairuan hartuko nuke. Tlf: 656 799 481.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berrieta eta amueblatua. 45.000.000 pra. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzeko. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako

- esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 euro-tan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 943 368 574.
- Emakumea interna moduan lan egiteko eskaintzen da. 608 098 941.
- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendingo edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka

- edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Raclet markako denda-karroa salgai (remolke karpina). Oso egoera onean eta garajea egondakoa. 2 ohe 1,90x1.50, baka, ordezko gurgipila, Jockey gurgipila eta arkoia ohe azpian. Ekonomikoa. 628652334.
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzako bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
- Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehenera asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburu-dendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldian abesteko kantari lirikoa. Interesatu bazuade maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien motal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapo-re@euskalnet.net



Hau tarta pila jango ditugunak! Zorionak wapisimos, ondo pasa eta muxu pilo bat familia eta lagunentzat.

Zorionak bikote! A zer handiak egiten ari zaren! Bizkotxoateko jateko gogo daukagu, zuek goxoa presatatu eta guk ondo abestuko dugu. Zorionak izeba Nuriari ere. Muxuak!

**Zorionak Eñaut!**

Uztairen 13an 4 urte bete dituzu. Muxu pilo bat zure guraso, arreba eta famili guztiaren partez.

Zorionak Andoni eta Igone, Igonek 7an eta Andonik 13an egin dituzue urteak. Muxu potolo bana etxeko guztien partez!! Zorionak baita ere amatxo izan zarela Igone! Nahia ere 7an jaio zen eta muxuak zientoka guraso berrientzat eta Nahiaentzat!



JAIOTZAK

Maddi Lago Barrio, ekainak 24
Noa Soroa Alzugarai, uztailek 3
Adur Soroa Mitxelena, uztailek 4
Uxue Lizartza Arizeta, uztailek 6
Malen Alkorta Errasti, uztailek 7
Nahia Goikoetxea Lizarralde, uztailek 7

Usurbilgo sagarra, udako freskagarri naturalena

Usurbilgo sagardotegi eta baserrietako sagardoak zure eskura; Astiazaran, Saizar, Urdaira, Arratzain, Aginaga, Gorostidi, Olano eta Aialde berri.



ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK



ERRAUSKETAREN ERAGINA INGURUAN

Linfoma No-hodgkin (10km-arte)
 Ehun bigunetan minbizia edo sarkomak (2km-arte)
 Fetuaren mutazio eta malformazioak (5km-arte)
 Bizkarrezur bifidoa eta bihotz arazoak (5km-arte)
 Kantzer ezberdinak (16km-arte)
 Asma arazoak (10km-arte)
 Leuzemia eta haurren minbizia (7,5km-arte)



ARRISKU GORENEKO INGURUA: 5 Km-arte

USURBIL, ANDOAIN, URNIETA, LASARTE-ORIA, HERNANI, IGARA-IBAETA, ANTIGUO, BERIO, IGELDO...

BIZTANLEAK 115.488

ARRISKU ERTAINEKO INGURUA: (8-14 km)

AMASA, BILLABONA, BERROBI, BELAUNTZA, ELDUAIN, IBARRA, TOLOSA, HERNIALDE ANOETA, IRURA, ASTEASU, LARRAUL, ALKIZA, AIA, ZARAUTZ, GETARIA, ARANO, ERRETERIA, PASAIA, LEZO, OIARTZUN, BIDEBIETA, INTXAURRONDO ETA ALTZA-HERRERA

BIZTANLEAK 206.836

ARRISKU ALTUKUKO INGURUA: (5-8 km)

ADUNA, ZIZURKIL, ORIO, ASTIGARRAGA DONOSTI ERDIALDEA, AMARA, GROS, LOIOLA, MARTUTENE

BIZTANLEAK 59.323

ARRISKU BAXUKO INGURUA: 14 eta 21 Km bitartekoa

GOIZUETA, LEITZA, BERASTEGI, GAZTELU, OREXA, LIZARTZA, ALTZO, ORENDAIN, LEGORRETA, IKAZTEGIETA, ALEGIA, ALBIZTUR, BIDEGOAIN, ERREZIL, BEIZAMA, AZPEITIA, ZESTOA, ZUMAIA, IRUN, HONDARRIBIA

BIZTANLEAK 112.544



Osasun-tekniko batzordea



GUZTIRA 494.191